



Kosmodisearen egun handia ospatu zen.

Joan den apirilaren 26an Kosmodisearen amaiera-ekitaldia egin zen Donostiako Kursaal Biltzar Jauregian. Ospakizun horren helburua izan zen, kultura ekintzailea osatzen duten balore eta jarreretan oinarrituta, ekimen horretan parte hartutako pertsona eta erakunde guztiei (batez ere ikasleei, irakasleei eta heziketa-zentrotrei) egindako lan bikaina aintzat hartzea. Kosmodisea programa pasa den azaroan jarri zen abian eta 42 ikastetxetako 1.400 ikaslek eta 111 irakaslek hartu dute parte, 137 taldetan banatuta.

Informazio gehiago

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak "Gipuzkoan Ekin Ekinari" gidaren bigarren zenbakia aurkeztu du. "Gipuzkoan Ekin Ekinari" gidaren bigarren entrega honek "Berrikuntzarako eta Ekintzailtzarako Foroak" izena du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimen berezi bat da, ekintzailtza eta berrikuntza uztartu nahian, eskualde mailako sareko dinamizazio-prozesu bat osatzea erabaki baitzuen. Argitalpena web orri honetatik bertatik ikus daiteke, "ppt" eta "pdf" formatuetan, eta, bertan azaltzen den moduan, esperientzia horri esker, Gipuzkoako eragile ekonomikoek, gizarte- eta hezkuntza-eragileek garrantzi handiko ideiak sortu ahal izan dituzte eta, hala, Gipuzkoako eskualde desberdinek ekintzailtza eta berrikuntzako dinamika propioak izan ditzakete, orainaldi ekonomikoa aberasteko eta, are garrantzitsuagoa dena, Gipuzkoaren etorkizuna aberasteko.

pdf / ppt gidara sartu

Pertsona ekintzailearen eguna hezkuntza esparruan. Apirilaren 27an Pertsona Ekintzailearen Eguna ospatu zen Gipuzkoako hezkuntza esparruan. Egun horretan aurkeztu ziren IKT informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, jolas elkarreragileak eta material pedagogikoak ikastetxe bakoitzean. Horretaz gain, Gipuzkoako hainbat ikastetxek kultura ekintzailearen inguruko ekintza zehatzak burutu zituen. Egun honetan heziketa maila guztietako 80 ikastetxe baino gehiago hartu zuen parte Gipuzkoan.

Informazio gehiago

"Gipuzkoan Ekin Ekinari" gidaren hirugarren alea ari dira prestatzen. Aurki "Ekintzailtasunerako ezagutza" sortako hirugarren zenbakia argitaratuko dugu. Ale hau, unibertsitatetik kanpoko Gipuzkoako hezkuntza-sistemaren barneko ekintzailtza landuko dute. Landa-lanean zehar honako erakunde haue-tako ordezkariak elkarrizketatu dituzte:

Informazio gehiago